

DANTZA SAREAN

# HATSA

Photo: Catherine Duplantier

Iraupena – Durée 1h

## Hatsa

Etxe handi baten ganer zabal batean, puxka zaharren artean, panpin itxurezko pertsonaiak agertzen dira. Hatsa magiko bati esker, pixkanaka animatzen dira eta bizia hartzen dute. Hastapen batean haien mugimenduak mekanikoak agertzen badira ere, isurkorrak eta emozioez beteta bilakatzen dira ikusgarrian zehar. Pertsonai bitxi horien ekoizpenean jarraitzeko, misterioz betetako musika bat entzun dezakegu. Dantza eta musikaren indar magiko horrekin, betirako itzalita pentsatzen genuen guzia berpizten da. Horra hemen bizia emaiten duen hatsaren istorio bat, unibertsoaren mugimendu zikliko handiak gidatzen dituen hats horren istorio bat. Ikuslea, giro poetiko batean sartuz, gizartearen kondizioaren gainean galdezkatzea eramana izanen da.



## Sorkuntza

Koreografiak hamabi dantzarietzat eginak dira. Zuzenean, bost musikariek ari dira : biolina, biolontxelo, akordeoia, klarineta eta perkusioak. Sorkuntza berezi huntan, euskal dantza, baita ere garaikideko dantzaren estetikak agertzen dira. Dantzaren teknikariak baino gehio, dantzariak gorputz adierazmen zehatz bat erabiltzen dute dantzatutako mugimenduaren kalitateari arta berezi bat eskainiz. IDBko « Dantza Sarean » dantza erakaskuntza baliabidean formatuak izan dira, IDB eta Maurice Ravel Kontserbatorioko euskal dantza, baita ere dantza klasiko eta garaikideko formakuntzak segituz.

*Zuzendaritza : Julien Corbineau*

*Koreografiak : Julien Corbineau, Nathalie Verspecht, Laetitia Cheverry*

*Eszenaren irudikapena : Annie Onchalo*

*Musika : Jean-Victor Suzanne*

*Jantziak : Anne-Marie Subias*

*Argiak : Julien Delinières*

*Soinuak : Didier Teilagorry*

